



## PREBENTZIOKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA, COVID-19 GAITZAREKIN KUTSATZEKO ARRISKUA DAGOENEAN EDO KUTSATUTAKOAN

### LORATU PROGRAMA

Dokumentu honetan Aretxabaletako Udalak eta Loramendi elkarteak 2020ko udan aisia hezitzaileko jardueretan COVID-19ak kutsatzeko arriskua edo kutsatze positiboa dagoenean jarraitzeko protokoloa jasotzen da. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako parte-hartzaileak (haurrak, beren legezko tutoreak eta begiraleak dira) Garatuko diren jardueren datuak honako hauek dira:

#### Udaleku Irekiak

Lekua: Aretxabaleta

Data: uztailaren 6tik 24ra

### PREBENTZIO-NEURRIAK

AUTONOMIA-ERKIDEGOAN COVID-19AKUTSATUTAKO KASUAK ZABALDUTA EZ DAUDENEAN HARTZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK

1.- Udalekuetako ekintzetan parte hartzeko kontrol-neurriak: nork bere burua kanpoan uztea, eta sintomen zaintza aktiboa parte-hartzaileen eta profesionalen artean.

COVID-19 gaitzarekin bateragarriak diren sintomen zerrenda:

sukarra, eztula edo airea falta delako sentazioa eta eztula, eztarriko mina eta sintoma atipikoak, hala nola, usaimen eta dastamen galerak, giharretako minak, beheakoak, bularraldeko mina eta buruko mina.

- Haurrak/begiraleak ez du bertaratu behar edo ezin du udalekuetan parte hartu COVID-19 gaitzarekin zerikusia izan dezakeen ezin sintoma sumatzen badu.
- Haurrak/begiraleak ez du bertaratu behar edo ezin du jardueran parte hartu gutxienez 14 egunez, COVID-19 gaitza izan duen pertsona batekin hurbileko kontaktua izan badu pertsona horrek sintomak zituen bitartean (bizikideak, familiakoak eta leku berean gutxienez 15 minutuz 2 metroko tartera baino gutxiagora egon diren pertsonak) edo pertsona harekin espazio berean pertsonen arteko distantzia gorde gabe egon bada, nahiz eta sintomarik ez eduki. (14 eguneko epealdi horretan, jarraipena egin behar da, gaixotasunaren zantzuak agertzen diren zaintzeko.)



- Haurrak/begiraleak udalekuetan parte hartu ahal izango du, bere erantzukizunpean, kaltebera bada edo kaltebera (ahula) den pertsona batekin bizi bada; kaltebera izan daiteke adinagatik, haurdun egoteagatik edo lehendik gaitzen bat edukitzeagatik (hala nola hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoa, minbizia edo immunoeskasia).

## 2.– Transmisioa prebenitzeko neurriak.

- ✓ Begiraleek/haurrek edo haien legezko tutoreek izango dute COVID-19 gaitzarekiko norberaren egoeraren erantzukizuna, COVID-19 gaitzarekin zerikusia duen adierazitako sintomaren bat baldin badu. Hala, partaideren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da jarduerara joango eta segurtasun arduradunarekin harremanetan jarriko da.

### SEGURTASUN ARDURADUNAK

**Udaleku Irekiak:** Maialen Mendieta/Julen Perales

Tel. 634 452 837

e-posta: [loratu.loramendielkartea.eus](mailto:loratu.loramendielkartea.eus)

- **UDALEKUAK HASI AURRETIK.** Higiene-jardunbide osasungarriak irakastea, sustatzea txostenabanutuko dute honako hauek zehaztuz:
    - Ezarritako segurtasun, jokabide eta higie neurriak.
    - Programazioa eta hartuko diren ekintzak
  - **EKINTZA HASI AURRETIK.** Ekintza hasi aurretik koordinatzaileek edo begiraleek haurren tenperatura kontrolatuko dute.
  - **EKINTZA HASI AURRETIK ETA GARATZEN DEN BITARTEAN.** Loratu programako zuzendariak zainduko dute jarduera segurua dela; horretarako, ezarritako segurtasun-protokolo eta -neurri guztiak behar bezala beteko dituzte.
  - **EKINTZAN ZEHAR.** Loratuko arduradunek, garbiketa eta desinfekzioa sakonagoak izatea zainduko da. Laneko higie- eta osasun-gaietan eskumena duten agintarien gomendioei jarraituz.
  - **EKINTZAN ZEHAR.** Loratuko arduradunek, begiraleen eta haurren artean higie-praktika osasungarriak sustatu eta indartzeko lan egingo dute.
- ✓ Udalekuen arduradunek programatutako bileren, ekitaldien eta talde-jardueren premiak eta arriskuak baloratuko dituzte eta arrisku handiena dakartenak atzeratzea aztertuko dute.
  - ✓ Udalekuetako arduradunek begiraleei eta partaide diren hurrei eskatuko diete, ondoeza edo gaixo egoteko sintomarik izanez gero, beren etxean geratzeko.



- ✓ Udalekuen arduradunek legez onartutako protokoloari jarraituko diote begirale edo parte-hartzaile bat edozein unetan gaixotzen bada, bai eta langileek nahiz parte-hartzaileek kutsatzea saihesteko jarraitu behar dituzten prebentzio-neurriak indartzeko protokoloari ere.

## JARDUERAK EGITEN DIRENEAN, COVID-19 GAITZAREN KASU POSITIBOREN BAT HAUTEMANEZ GERO UDALEKUETAN

Transmisio komunitarioko egoeran gaudenez, oso kontuan hartu behar da COVID-19 kasuak izan daitezkeela gaitzarekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsona guztiak.

- **Norberaren konpromisoa segurtasuneko eta higieneko neurriekiko.** Udalekuak hasi aurretik, familiek udalekuetan izena emateko eman duten informazioan eta begiraleei eman zaien informazioan gogorarazi zaie beren osasun-egoeraren eta higiene- eta prebentzio-arauak betetzearen erantzule direla eta inola ere ez dutela joan behar jardueretara sintomekin edo ondoezarekin. Sintomak izanez gero lehenbailehen abisatuko da udalekuen arduradunei eta anbulatoriora deituko da.
- **Sarreran arriskua ebaluatzea.** Arnas infekzioa, eztula, sukarra (37º), eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna edo usaimena galduta dituzten pertsona guztiak izan daitezke COVID-19ko kasuak. Jarduerara sartzean, berehala identifikatuko dira, eta familiari/tutoreari (izen ematean jarri zen telefono kontaktura) jakinaraziko zaio eta Hernaniko Osakidetzako osasun zentroara, anbulatorioara, lehenbailehen deitzeko gomendatuko zaie; eta anbulatoriotik telefonoz esango diete zer egin.

Identifikazioa egingo da tenperatura neurtzeko gailuen bidez, behatuz edo parte-hartzaileek egindako jakinarazpenen bitartez.

- **Parte-hartzailearen batek COVID-19 gaitzaren sintomak izan daitezkeenak baldin baditu., identifikatzea.**

Haur batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituenean edo jardueran zehar begirale batek sintoma horiek detektatzen dituenean, taldetik alboratuko du. Aurretik ezarritako segurtasun- eta distantzia-neurriak zorrotz bete beharko dira. Udalekuetako zuzendaria etorriko da maskara kirurgikoa eta pantaila jarria duela haurraren bila.

Zuzendaria haurrarekin egongo da aire librean, haren arduradunak jasotzera etorri arte. Artatzean erabilitako materiala modu egokian desegino da.

Kasu bakoitzean dagokion familiari, tutoreari edo hurbilekoari jakinaraziko zaio eta Aretxabaletako anbulatorioarekin **telefonoz harremanetan** jartzeko gomendatuko zaio kasua ebaluatu ahal izateko. **Ez joan anbulatoriora!**

Aretxabaletako osasun-zentroa : **943711 959**  
Aholku Sanitarioa **943711 959**

COVID-19 pandemiaren trantsizio-fasean diagnostikoa, zaintza eta kontrola egiteko estrategiaren arabera, hari dagokion lehen mailako arretako taldeak egin behar dio



balorazio klinikoa (Hernaniko osasun-zentroko langileak) eta eskatu behar du proba diagnostikoa egitea, kasua baieztatzeko, jakinarazteko eta jarraipen klinikoa egiteko, bai eta haren kontaktuak aztertzen hasteko ere (Osasun Publikoaren Zerbitzuarekin elkarlanean, antolaketa-esparruaren arabera).

Begiraleren batek sintomak baditu, hari dagokion Lehen Mailako Arretako taldearekin jarri behar da harremanetan, bere herriko erreferentziazko telefonoaren bidez (Aretxabaletako osasun-zentroa 943 711 959), eta haiek emandako jarraibideak beteko dira.

- **COVID-19aren kasu positiboa identifikatu ondoren nola jardun.** Aretxabaletako Udala eta Loramendi Elkarteko Loratu programak sortutako protokoloa jarriko da abian, eta une oro beteko dira osasun-alorreko agintarien gomendioak.
- Osasun Publikoaren Zerbitzuari dagokio, Lehen Mailako Arretarekin eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin elkarlanean, langilea bada, hautemandako kasu positiboekin kontaktuen azterketa antolatzea.
- Kasuen eta haurren eta profesionalen arteko kontaktuen kudeaketa egiteko, zaintza- eta kontrol-estrategiaren dokumentuan jasotakoa beteko da. Ez dagokie aisialdiko profesionaleri, ez kontaktuen azterketa egitea, ez jarduera bertan behera utzi edo ez baloratzea. Gomendatzen da, ordea, osasun-alorreko agintariak eskatutako zereginetan laguntzea eta lana erraztea. Egin kontsulta hemen:  
[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/COVID19\\_Estrategia\\_vigilancia\\_y\\_control\\_e\\_indicadores.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/COVID19_Estrategia_vigilancia_y_control_e_indicadores.pdf)
- **Jarduerak bertan behera uzteko erabakia hartzea.** Osasun-agintaritzaren jarraibideei jarraituz, jarduera bertan behera uzteko agindu ahal izango da. Horretarako, protokolo bat ezarriko da, agintaritza eskudunak onartua, erabaki horrek indarrean dagoen legeriaren barruan izango dituen ondorioak jasoko dituena.

Beharrezkoa izanez gero, haurren etxerako itzulera koordinatuko da, eta jarduerak egiten jarraitzeko estrategiak abiaraziko dira, beste aukera batzuk aztertuta



Aretxabaletako  
Udala

## COVID-19-A DELA-ETA HAURREN AISIA HEZITZAILEKO JARDUERAK EGOKITZEKO PLANA

Dokumentu honek Aretxabaletako Udalak eta Loramendi elkarteak 2020ko udan aisia hezitzaileko jarduerak garatzeko egin duen egokitzapen-plana jasotzen du. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako parte-hartzaileak (haurrak) eta beren legezko tutoreak dira. Jardueren datuak honako hauek dira:

### Loratu programa

Lekua: Aretxabaleta

Data: 2020ko uztailearen 6tik 24ra

Orduetgia: 9:00-13:00

Hartzaileak: 2008tik 2013ra jaiotako haurrak, bi urteak barne

Parte-hartzaile kopurua: 127 haur eta 21 begirale.

Egoera berezia izanik, aurreko urteetan eskaini den udaleku irekiak programa moldatu da eta Loratu izeneko programa sortu da. Programak egoera berrira moldatzeko egokitzapen-plan bat diseinatu da, jarraian adierazten diren alderdiak kontuan hartu dituen.

### NEURRIAK

#### 1. Kutsapenaren kontrola eta prebentzioa

- ♣ Garrantzitsua da COVID-19aren sintomatologia ezagutzea:

COVID-19 gaitzarekin bateragarriak diren sintomen zerrenda:

sukarra, eztula edo airea falta delako sentrazioa eta eztula, eztarriko mina eta sintoma atipikoak, hala nola, usaimen eta dastamen galerak, giharretako minak, beherakoak, bularraldeko mina eta buruko mina.

Hemen ere kontsulta daiteke:

[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/img/COVID19\\_sintomas.jpg](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/img/COVID19_sintomas.jpg)

Parte-hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, haietakoren batek COVID-19arekin lotutako sintomak baditu, ez da jarduerara joango eta Loratuko zuzendariekin harremanetan jarriko dira

**Loratu:** Maialen Mendieta/Julen Perales

Tel. 634 452 837

e-posta: [loratu@loramendielkartea.eus](mailto:loratu@loramendielkartea.eus)



Aretxabaletako  
Udala

- ♣ Jardueraren arduradunak (Loratuko zuzendariak) bertako segurtasunaz arduratuko dira. Agindutako segurtasun-protokolo eta –neurri guztiak beteko dituzte, besteak beste:
  1. Parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskinean jaso) izatea, arrisku-talde batekoa ez dela eta bere bizikideen artean arrisku-talde bateko inor ez dagoela ziurtatuz.
  2. Parte-hartzaile bakoitzaren konpromisoa izatea, egunero osasun-egoera eta ez joateko arrazoia jakinarazteko (III. eranskinean jaso).
  3. Parte-hartzaile bakoitzaren egiaztagiria izatea, derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartuz.
  4. Parte-hartzaile bakoitzak sinatutako baimen informatua izatea.
  5. Egoera sanitarioengatik, pertsonalengatik edo sozioekonomikoengatik arriskuan dauden pertsonen parte hartzeko bete behar diren baldintzei buruzko informazioa emana izatea.
- ♣ Jardueraren hasieran parte-hartzaileekin tailerrak eta ekintzak egingo dira segurtasun-portaera eta -distantzia egokiak, higie-neurriak eta abar gogorarazteko.
- ♣ Jardueran zehar segurtasun-portaera eta –distantzia egokiak, higie-neurriak eta abar gogoratuko dira.
- ♣ Jarduera talde txiki eta autonomoetan landuko da. Eusko Jaurlaritzako dekretuak gehienez 15 pertsonako taldeak baimentzen ditu. Loratu programan 15 baino gutxiagoko taldeak izango dira.
- ♣ Talde bakoitzak egunero elkartzeko leku bat izango du izendatua eta elkartu eta jaso egunero leku horretan egingo da, modu honetan jende pilaketak eragozten dira.

## **2. Derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalak betetzea**

- ➡ Begiraleek gel hidroalkoholikoa eta paperezko zapiak izango dituzte uneoro, eta erabiltzaileen eskura jarriko dituzte haiek eskuak garbitzeko.
- ➡ Taldeak erabiliko duen materiala desinfektatzeko, Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako birusaren kontrako desinfektatzaileak erabilgarri izango dituzte begiraleak.
- ➡ Pertsonen arteko bi metroak gorde ezin diren lekuetan, nahitaezkoa izango da musukoa erabiltzea.
- ➡ Partaide bakoitzak bere musukoa/maskara eraman behar du etxetik. Hala ere, begiraleek erreserbako maskarak eramango dituzte, norberarena galdu, hautsi edo antzeko zerbait gertatuz gero ordeztu ahal izateko. Maskara hauek erabilera bat baino gehiagokoak dira, baina erabilera beti individuala izango da.

Arau hauek betetzen ez direnerako ondorio-neurriak:

1. Partaideren batek arauen bat ez badu betetzen, ekintzatik atera eta azalpenak emango zaizkio. Ekintzara bueltatzeko araua bete beharko du.
2. Arau haustea gertatzen den aldiro segurtasun arduradunari jakinaraziko zaio eta horrek partaidearen tutorearekin hitz egingo du.
3. Arauak behin eta berriz hausten badira, egoeraren balorazioa egingo da irtenbide bat topatzeko, beti ere partaidearen tutorearekin eta Aretxabaletako Gazteria zerbitzuarekin batera.
4. Partaideren bati, ahaleginak-saiakerak egin ostean egoera iraultzeko, ezinezkoa bazaio arauak betetzea, eta Covid-19ari dagokionez arrisku-portaerak baditu, udalekuan parte ezin duela adieraziko zaio.



Aretxabaletako  
Udala

### 3. Arrisku-taldeen eta sozialki desabantailak dituztenen babesa

- ✓ Jardueran parte hartu aurretik, arduradunek arrisku-taldeetako kideen (diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra, hipertentsioa, biriketako gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, tratamendu aktiboan dagoen minbizia, haurdun dauden emakumeak, 60 urtetik gorakoak) edo halakoekin bizi direnen parte-hartzeari buruzko galdeketa egin da, beti ere, inskripzio aldian emandako informazioarekin.
- ✓ Arreta berezia eskaini zaie parte hartzeko aukerak urrituta dituztenei (arrisku-taldeak, gizarte-desabantailako egoeran daudenak, dibertsitate funtzionala edo intelektuala duten pertsonak), horretarako Zerbitzu Sozialekin eta herriko ikastetxeekin elkarlana egin da eta, beharrezkoa den kasuetan, berariazko begiraleak jarriko zaizkie.

### 4. Jardueretarako izen-ematea

Izen-ematea on line egin da eta amaitua dago dagoneko.

### 5. Aurrez aurreko jarduerak egokitzea eta berrantolatzea

- ↪ Aire zabaleko jarduerak egingo dira; ez da ekipamendu itxirik erabiliko. Erabiliko balitz eguraldi oso txarra dagoelako, bertako segurtasun neurriak jarraituko lirateke).
- ↪ Loratu programako topalekuak ugaritu egin dira; talde bakoitzak bere erreferentzia espazioa izango du. Horrela, pilaketak saihestuko dira eta segurtasun-distantziak mantentzeko baldintzak beteko dira. Guztiek ordutegi berdina izango dute: 9:00-13:00. Topalekuak izango dira ekintza hasi eta amaitzeko toki finkoak udalekuak iraun bitartean.

Topalekuak:

#### Loratu programa

#### Topalekuak:

LH1,LH2,: Iralabarri plazan elkartuko dira

LH3: Murubide

LH4: Errekabarren

LH5: Belorrieta

LH6: Belorrieta

- ↪ Jarduerak egiteko orduan, lehenetsuna eman zaie prebentzioko eta pertsonen arteko gizarte - distantziako neurriak betetzea ahalbidetzen duten jarduerari. Etengabeko kontaktu fisikoa eskatzen duten jarduerak egitea saihestuko da.

↪ Taldeak:

- Udaleku Irekiak: gehienez 15 pertaideko taldeak eta 2 edo 3 begirale taldeko.

Gainerako taldeekiko autonomoak izango dira. Ez da jarduera bateraturik egingo.

- ↪ Haurren aisia hezitzaileko jarduerak parte-hartzaileen arteko harreman fisikoa nahitaez eskatzen duten arren, hau mugatu egingo da. Horregatik, ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; musukoak erabiliko dira osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan, eta hau bereziki garrantzitsua izango da, segurtasun-distantzia mantendu ezin denean.
- ↪ Jardueraren ardura duten Loratu programako udalerriko beste agente baliokide batzuekin koordinatuko dira, pilaketak saihesteko, bai eta agintari eskudunekin ere, espazio publikoak modu ordenatu eta seguruan erabiltzeko.
- ↪ Espazioen erabilera eskaerak Gazteria Zerbitzuan egingo dira eta hauek baimenduko dituzte. Espazioen erabileraren berri emango zaio, espazioaren arduradun den udal sailari eta Udaltzaingoiari.



## 6. Begiraleak, jarduera-taldeen arduradun gisa

- Talde bakoitzeko begiraleak parte-hartzaileak jasotzeko eta amaieran gurasoekin edo legezko tutoreekin uzteko ardura izango dute. Distantzia-neurriak errespetatzen direla zainduko dute, eta pilaketak saihesten saiatuko dira. Osasun-portaerak eta -materialak kontrolatuko ditu eta, lehen esan bezala, musukoak banatuko dizkiete halakorik ez duten parte-hartzaileei.
- Begiraleek taldeko materiala desinfektatua mantentzeko ardura izango dute.
- Begiraleek gel hidoralkoholduna, papera, maskarak eta desinfektatzaileak eramango dituzte jardueretara.
- Begiraleak talde partaideen osasun egoeraren berri informatuak mantenduko dira.
- Begiraleek prestakuntza espezifiko eta eguneratua jaso dute COVID-19ari buruz, ezartzen ari diren neurri eta protokolo espezifikoari buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz, dagokion osasun-agintaritzak ezarritakoarekin bat etorritik. (Eusko Jaurlaritzak eskainitako ikastaroak egin dute).

## 7. Parte-hartzaileen joan-etorriak, jasotzea eta entregatzea

- ↪ Begiraleek zaindu behar dute parte-hartzaileak jaso eta beren legezko tutoreei entregatzen zaizkiela, horretarako zehaztuta dagoen ordutegian.
- ↪ Partaideren batek udalekuetako ordutegia baina lehenago joan edo etorri egin behar badu, aurrez adierazia izango du eta zuzendariak antolatuko du nola egingo den joan-etorria.
- ↪ Partaideen joan-etorrian baimendutako heldu arduradunek bakarrik jasoko dute haurra.
- ↪ Partaideren batek medikura joan beharra badu, programaren zuzendaria informatua egongo da Covid-19arekin loturiko sintomagatik den ala ez.

## 8. Jarduera garatzeko baldintzak

### 8.1. Jardueren aurreko informazioa eta komunikazioa

Aretxabaletako Udalak Loramendi euskara elkartearekin batera informazio hau emango die parte-hartzaileei eta gurasoei edo legezko tutoreei:

- Jarduera egiten den bitartean higie- eta segurtasun-arloan hartuko diren prebentzio-neurrien dokumentu argigarria. Programazio taularekin batera txertatuko dena.
- Jarduera COVID-19a egokitzeko dokumentua (dokumentu hau, alegia)
- Kutsatzeko arriskua edo kutsatze positiboa dagoenerako prebentzioko eta jarduteko protokoloa
- Parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharra eta baimen informatua onartzeko dokumentu bat

### 8.2. Jarduera egiten den bitartean:

- ➡ Jardueraren arduradunek segurtasuna zainduko dute, jardueren hasieran osasun-adierazpena eginez eta ezarritako segurtasun-protokolo eta -arau guztiak behar bezala betez.
- ➡ Parte-hartzaileei dagokien taldea zein den esango zaie, eta beren begiralearekin bilduko dira jarduerari hasiera emateko izendatzen zaien topalekuan. Begiraleak bere taldeko parte-hartzaileak egunero leku berean hasi eta amaituko dute.
- ➡ Begiraleak ezarri diren prebentzio-neurriak gogoratuko ditu, eta gainerako onerako eta segurtasunerako bete daitezela eskatuko du (gainazalak ez ukitzea, segurtasun-distantzia mantentzea, maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, etab.); eta instalazioak erabiltzen diren kasuan nola erabili ere adieraziko du
- ➡ Begiraleak taldeari jakinaraziko dio nola egingo den jarduera, bisita edo ibilbidea, bai eta aplikatzen diren arauak edota izan daitezkeen murrizketak ere.
- ➡ Begirale batek lagunduko dio komunera haurrari gero desinfektatu ahal izateko.
- ➡ Kontaktatu fisikoa eskatzen duten agurtzeko moduak saihestuko dira.





Aretxabaletako  
Udala

- Diziplina-neurriak aplikatuko dira, arauak betetzen ez badira.
- Materiala ez da partekatuko beste parte-hartzaileen artean, ezta begiraleekin ere. Talde bakoitzak bere materiala izango du eta aldiro desinfektatua mantenduko du.
- Ez da garraio publiko pribaturik erabiliko, ekintza denak herrian edo inguruan egingo dira.

### 8.3. Jarduera amaitzean

- Erabilitako babes-materialak (maskarak) behar bezala botako dira edo etxera eramango dira berrerabilgarriak badira.
- Harreman pertsonala ahalik eta gehien murriztuko da jardueraren osteko kudeaketetan, komunikazio telematikoa sustatuz.

## 9. Parte-hartzaile, begirale eta profesionalentzako oinarrizko segurtasun- eta higiene-ekipamenduak

Jardueren ardura duten Loramendi elkarteko loratu programakoek, hasi aurretik, behar beste oinarrizko higiene-ekipamendu hornitzen direla ziurtatuko dute, erabiltzaileek eta langileek erabil ditzaten.

### 9.1. Norbanakoen higiene-gomendioak jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren produktuak:

- Begiraleentzako eta parte-hartzaileentzako bada ez badako musukoak. Begiraleek eta parte-hartzaileek maskara garbiak izan beharko dituzte, osasun-agintariek ezarritako baldintzetan. Parte-hartzaileek ezin badute hornidura hori ziurtatu, erakundeak hartu beharko du bere gain.
- Soluzio hidroalkoholikoa jarduera-espazioetan eskuragarri izango dira.
- Erabili eta botatzeko zapiak eskura izango dira jarduera-guneetan.
- Beharrezkoa balitz, eguneroko higienizazio indartuko lanei ekin ahal izateko garbiketa-materiala (besteak beste, lixiba eta Osasun Ministerioak desinfektatzeko baimendutako produktuak).  
[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado\\_virucidas.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_virucidas.pdf)

### 9.2. Erreserbako materialak:

- Antolakuntzak erabilera orokorreko ordezkoko maskarak izango ditu aurreikusitako parte-hartzaileentzat eta haien begiraleentzat.
- Jardueraren antolatzaileek garbiketa-materialaren hornidura nahikoa izango dute, egunero higienizazio indartuko lanak egin ahal izateko.

## 10. Langileentzako neurri espezifikoak

### 10.1. Praktiketean dauden begiraleentzako neurriak

Praktiketako begiraleek parte hartu ahal izango dute, nahiz eta horrek azpitalde bateko parte-hartzaileen kopurua handitzea ekarri, betiere indarrean dagoen araudia betez.

### 10.2. Osasun-baldintza arriskutsuak dituzten profesionalentzako neurriak

<https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/PrevencionRRL COVID-19.pdf>



## ERANSKINA. COVID-19. DERRIGORREZKO HIGIENE- ETA PREBENTZIO-NEURRIEN DOKUMENTUA

Dokumentu honek jasotzen ditu Aretxabaletako Udalak Loramendi Elkartearekin batera 2020ko udan aisia hezitzaileko jarduerak egiteko prestatu dituen derrigorrezko higie- eta prebentzio-neurri pertsonalak. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako parte-hartzaileak eta begiraleak dira.

Garatuko den jardueraren datuak honako hauek dira:

### Loratu Programa

Lekua: Aretxabaleta

Data: uztailaren 6tik 24era

Proposamen hori agintari eskudunak onartuko du, indarrean dagoen legeriaren barruan. Gainera, erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Osasun-agintaritzak une bakoitzean zehazten dituen protokoloak edota jarraibideak aplikatzea.
- Dokumentu honetan azaldutako neurri orokorrak sartzea.
- Arintze-faseetarako aurreikusitako neurriak sartzea. Neurri horiek GAZTERIAREN ESPARRUKO AISIA HEZITZAILEKO JARDUERETAKO ESTRATEGIA ETA ARINTZE-FASEAK dokumentuan zehazten dira.
- Indarrean dagoen legeriaren beste alderdi egoki batzuk sartzea

## JARDUERA GARATU BITARTEKO PREBENTZIO-NEURRIAK PARTE-HARTZAILEENTZAT

### 1. Ez da jarduerara joango...

- COVID-19arekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Kasu horretan, COVID-19aren arretarako telefonoarekin edo bere lehen mailako arretarako zentroarekin harremanetan jarri eta haien jarraibideei jarraitu behar die.

Aretxabaletako osasun-zentroa 943 711 959  
Aholku Sanitarioa 900 20 30 50

Ez da pertsona gehiago dauden lekuetara joango, harik eta beretzat edo besteentzat arriskurik ez dagoela baieztatu arte. Kontsultatu hemen dekalogo, sintomak daudenean nola jokatu jakiteko. [https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/20200325\\_Decalogo\\_como\\_actuar\\_COVID19.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/20200325_Decalogo_como_actuar_COVID19.pdf)

- COVID-19ak kutsatutako pertsona batekin kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta sintomak zituen kasu positibo batekin leku berean gutxienez 15 minutuz eta 2 metro baino gutxiagoko distantzian egon diren pertsonak) edo COVID-19ak kutsatutako norbaitekin pertsonen eta arteko distantzia gorde gabe leku berean egon bada. Kasu horretan, segimendua egingo da, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko, 14 egunez.
- Parte hartu ahal izango da adinagatik, haurdun egoteagatik edo aurreko afekzio medikoak izateagatik kaltebera den pertsona batekin biziz gero (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa). Baina hori arrisku larria izan daiteke beretzat edo berekin bizi direnentzat.

### 2. Jarduerarako joan-etorriak



- Ahal den guztietan, pertsonen arteko 2 metro inguruko distantzia ondoen bermatzen duten mugikortasun-aukerak lehenetsiko dira.
- Oinez, bizikletaz edo motorrez joanez gero, ez da beharrezkoa maskara eramatea. Kaletik oinez joatean, pertsonen arteko distantzia gorde behar da.

### **3. Jarduera garatu bitartean**

- Jardueraren arduradunak, begiraleak, arduratuko dira segurtasun-distantzia eta -neurriak betearazteaz.
- Parte-hartzaileek beren taldearen arduradunei, begiraleei, kasu egingo diete, eta jardueran pertsonen arteko 2 metro inguruko distantzia gordeko dute, espazio itxietan nahiz aire zabalean, eta instalazioetarako sarrera-irteeretan.
- Parte-hartzaileek maskarak eramango dituzte, osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan, eta eskularruak, jarduerak hala eskatzen duenean. Jarduerak maskara erabiltzea eragozten badu, pertsonen arteko segurtasun-distantzia 3 metrora luzatuko da.

### **4. Jarduera antolatzeko neurriak**

- Begiraleek ziurtatuko dute parte-hartzaileek maskarak dituztela edo, behar izanez gero, beraiek emango dizkiete.
- Begiraleek banakako gomendioak jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren higiene-produktuak eman beharko dizkiete parte-hartzaileei, jarduera jakin bakoitzera egokituta. Oro har, soluzio hidroalkoholikoa eta maskarak behar bezala hornitu behar dira.
- Begiraleek parte-hartzaileei jakinaraziko dizkiete arriskuak eta banaka bete beharreko osasun-eta higiene-neurriak.
- Begiraleek, ahal den neurrian, saihestu egingo dute jardueran material partekatuak erabiltzea.
- Higiene- eta segurtasun-neurriei buruzko informazioa emango [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus) webgunean eta dokumentuak entregatuz, ahal dela bide telematikoz.

### **5. Jardueran parte hartuko dutenentzako gomendioak**

- Maskara edo musukoa erabiltzea osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan, begiraleak hala eskatzen duenean.
- Jardueraren arduradunak adierazitako prebentzio-neurri guztiak beteko dira.
- Pertsonen arteko distantzia mantenduko da (2 metro inguru).
- Kontaktu fisikoarekin agurtzea saihestuko da, eskua ematea barne.
- Eskuak soluzio hidroalkoholiko batekin garbituko dira, bereziki ez tul edo doministiku egin ondoren edo kutsatuta egon daitezkeen azalerak ukitu ondoren.
- Higiene pertsonaleko edozein hondakin -batez ere, erabili eta botatzeko zapiak- berehala botako da horretarako prestatutako paperontzietara edo edukiontzietara.
- Sintomak antzemanaz gero, arreta handiz zainduko dira urruntze soziala eta higiena, eta jardueraren arduradunei jakinaraziko zaie.

## **BEGIRALEENTZAKO, ANTOLATZAILEENTZAKO ETA LANGILEENTZAKO BERARIAZKO SEGURTASUN-NEURRIAK**

### **6. Begirale eta langileentzako neurri orokorrak**

- Maskarak erabiliko dira osasun-agintarien indarreko gomendioek ezarritako baldintzetan, eta



eskularruak, jarduerak hala eskatzen duenean.

- "Jarduera garatu bitarteko prebentzio-neurriak parte-hartzaileentzat" ataleko argibide guztiak begiraleek eta antolatzaileek ere errespetatuko dituzte.

#### **ERABILTZAILEEI ETA LANGILEEI BETE BEHARREKO ARAUAK JAKINARAZTEKO NEURRIAK**

- Zerbitzu aktiboei buruzko informazioa emango da, erabiltzaileekin etengabe komunikatuz.
- Informazio orokorra eskainiko da: komunikazio-zirkularrak/informazio-oharrak, jarraitu beharreko ohiturei, jarduerak egiteko moduari eta kontuan hartu beharreko neurriei buruz, norberak eraman beharreko materialei buruz, etab.